

KOSTUEN EGITURA:

Kostuen egituraz hitz egiterako garaian, hainbat ezaugarri hartuko ditugu kontuan:

1. **Kostu finkoak:** Gure proiektuan, kostu finkoak ez dira ugariak. Halaber, web-orriaren hostinga izango litzateke. Izan ere, motxilen kudeaketa taldekide baten baserrian gauzatuko litzate eta horrela, ez genuke arlo horretan kosturik izango.
2. **Kostu aldagarriak:** Kostu aldagarriak, ordea, ugariak izango dira. Lehenik, produktu teknologikoak erosiko dizkiegun enpresak daude. Bigarren, motxilak erosiko dizkiegun dendak izango lirateke. Motxila horiek, herriko denda xumeetan erosiko genituzke, produktu herrikoiak bultzatzeko. Aurreko kontzeptu guztiak eskaera kopuruan oinarritzen dira.

Gure egitasmoak ez luke inbertsio handirik beharko. Hori dela eta, gure lehen inbertsioa kopuru txikikoa izango litzateke. Eskaintzak kontuan izanik, gure proiektua garatzeko diru-sarrera kopuruak malguak izango lirateke (eskaintza handitzean diru kopurua handituko genuke eta alderantziz).

Gure negozio-eredua kalitate-maila handikoa izango denez, funtzionamendu egokia izango duela espero dugu.